



BEHE ERDI AROKO ETA ARO
MODERNOAREN HASIERAKO BIZITZA
ERLIJIOSO ETA MORALAREN
KONTROLA EUSKAL HERRIAN: BILBO ETA
MARKINAKO KASUEN AZTERKETA

Tutorea: Jose Ángel Lema Pueyo



ANDONI GOMEZ ALDANONDO
HISTORIAKO GRADUA
ERDI AROAREN, ARO BERRIAREN ETA AMERIKAREN HISTORIA SAILA
JAKINTZA ARLOA: ERDI AROA
2014-2015 IKASTURTEA
[2015-06-22]

INDIZEA

Lanaren laburpena.....	2
1. Sarrera.....	3
2. Argibide iturriak, erabili diren azterlanak eta dokumentazio argitaratua.....	3
3. Herri xehearen kontrola.....	5
3.1. Elizkizunen kontrola.....	5
3.2. Lukurreria.....	7
3.3. Jai egunen erregulazioa.....	8
3.4. Sexu harremanak.....	8
3.5. Emakumezkoen soziabilitatea.....	9
3.6. Jokoen kontrola.....	12
3.7. Jainkoaren kontrako irainak	13
3.8. Eskaletasunaren arazoa	13
4. Kleroaren kontrola.....	14
4.1. Behe kleroaren hezkuntza prestaketa.....	16
4.2. Elizgizonen zelibatua.....	17
4.3. Elizgizonen bestelako jokabideak.....	19
4.4. Kleroaren talde kontzientzia.....	20
4.5 Kontrolatzaile anitzak eta lehiakideak.....	21
5. Ondorioak.....	24
6. Bibliografia.....	26

LANAREN LABURPENA

Lan honek Behe Erdi Aroko eta Aro Moderno Hasierako erlijiozkotasuna eta morala aztertzen ditu Bizkaiko Jaurrerian eta batez ere Bilbo eta Markinan. Erabilgarri dagoen informazioari dagokionez oso oparoa da, baina oraindik badaude zenbait iturri aztertzeke.

Aztergaiari dagokionez bi zati ezberdinetan banatzen da, batetik herri xehea izango genuke eta bestetik aldiz elizgizonak. Lehen taldeari zuzendutako neurriei erreparatzen badiogu, helburua bikoitza zen, batetik, ordena eta bake publikoa segurtatu nahi ziren, arazo sozialak ekiditeko, bestetik, portaera txarrak ekidin nahi ziren horrelakoak Jainkoaren kontrako iraina suposatzen zutelako, eta ondorioz, jainkozko haserrea pizturik, izurri, gosete, katastrofe natural eta antzekoak jasan zitezkeen.

Modu honetan elizkizunetako jokabideak erregulatzeko neurriak hartzen dira, hauek meza berri, hileta, urtebetetzeko meza eta antzekoetan gertatzen den gehiegizko handitasunaren kontra doazelarik, jende kopurua mugatu eta gehiegizko negarrak egitea ekidinez. Bestetik, lukurreriaren kontra ere jarduten dute, bekatu baitzen modu honetan Jainkoaren denbora saltzea. Horretaz gain, jai egunak errespetatzeko ordenantzak ere idatzi zituzten, jendea egun horiek errespetatzera bultzatuz. Baina sexu harremanen kontua ere lantzen zen hauetan, adulterioaren bekatuaren kontrako neurriak hartuz eta baita homosexualitatearen kontra eginez. Bestetik emakumearen soziabilitatea erregulatzeko neurriak ere aurkitu ditzakegu, hauen bilkurak ekidin nahi zituztenak, bertan sor daitezkeen marmarren eta arazo beldur. Hauetaz gain eskaleak ere kontuan izaten ziren horrelako ordenantzetan, bai, hauenganako karitatea bultzatuz eta baita eskale faltsuen kontrako neurriak diktatuz ere. Azkenik karta jokoak, apustuak eta horrelakoak mugatu edo debekatzen ziren neurriak ere badago, hauetan galtzeak zekartzan liskar eta biraoak ekiditegatik.

Elizgizonen kontrola aztertzen badugu, orokorrean hezkuntza eta moral maila baxuko gizonak zirela ikusi dezakegu. Humanismoarekin batera mugimendu berritzaileak hasi ziren agertzen hauen irudia hobetzeko, hain zuzen ere, elizgizonak bilakatu nahi baitziren herriarentzako eredu morala. Honetarako apaizgaitegiak sortu ziren, behar bezalako hezkuntza jaso zezaten, baina katiximak ere idatzi zituzten besteak beste zelibatuaren erregela errespetatzen zezaten.

Kontrol hau ordea Elizako hierarkiatik ez ezik udal botere eta jaun laikoen aldetik ere gertatu zen, baina ezin digu ahaztu elizako kideak pribilejiodun estamentua zirela,

talde kontzientzia sendoa zutelarik. Modu honetan zenbait alorretan tribunal eklesiastiko batek bakarrik epaitu zitzakeenez zaila zen beste botereen aldetik, euren bizimodua erregulatzea, nahiz eta bazeuden horretarako bideak ere.

1. SARRERA

Lan honen helburua Behe Erdi Aroko eta Aro Moderno hasierako (XIV-XVI. mende bitartea) moralak eta erlijiozkotasuna aztertzea da, hain zuzen ere esparru hau elizaren aldetik baina, bereziki udal botereen aldetik zein jaun laikoen aldetik nola erregulatzen den jakitea, honen atzean dauden interesak zein diren ezagutzeko. Modu honetan garai hartako pentsamoldera hurbildu nahi nuke, neurri hauen izaeran sakondu eta hobeto ulertzeko asmoz.

Esparru geografikoari dagokionez nire hasierako helburua Euskal Herri osoa hartzea zen, baina lanak aurrera egin duen heinean, Bizkaiko konderrian zentratu naiz, bai informazio kopuru handia eskaintzen duelako eta baita, Euskal Herri guztiaren azterketak lan zabalago bat egiteko aukera ematen duelako. Baina lana sakontasun ahalik eta gehienez egiteko helburuz, are gehiago mugatu dut esparrua, gehienbat Bilbo eta Markinako zonaldeei erreparatuz, nahiz eta batzuetan bertako egoera, orokorrarekin ere parekatu dudana, ikuspegi zabalagoa izateko eta testuinguraketa egiteko.

2. ARGIBIDE ITURRIAK: ERABILI DIREN AZTERLANAK ETA DOKUMENTAZIO ARGITARATUA

Lan hau egiteko eskuragarri dagoen bibliografia aztertzen badugu oso oparoa dela esan behar da, baina, lan honen mugak direla eta, egile garrantzitsuenak hautatu ditugu, euren lan ezaugarritsuenak baliatuz, informazio kopurua handia lortu dugularik.

Horien artean aipagarrienak Iñaki Bazán Díaz eta Ernesto García Fernández dira. Hauen lanak oso baliagarriak izan dira gure helburuetarako, biek Behe Erdi Aro eta Aro Modernoaren hasierako euskal gizartearen jokamoldeak eta baloreak ezagutzeko ekarpen nabariak egin baitituzte. Iñaki Bazánek, *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna* izeneko liburuan, erlijioarekin lotutako delituak zehaztasun oso handiz eta erudizioz azaltzen ditu, bai herri xeheari eta baita elizgizonei dagozkienak, aldi berean interpretazio ahalmen handia erakutsiz. Ernesto Garcíaek, aldiz, *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)* deritzon lanean garaiko erlijiositatearen funtsak argitasunez adierazten ditu, kleroaren egoeraren

inguruko interpretazio interesgarriak azalduz eta sintesi ahalmen bikaina erakutsiz. Honetaz gain, *Gobernar la ciudad en la Edad media: oligarquías y élites urbanas en el País Vasco* lana ere erreferentzia garrantzitsua da, aipatutako gaiak hiribilduaren gobernuaren testuinguruan ulertzeko.

Bestetik, Roberto Palacios Martínez eta Hegoi Urcelay Gaonaren “El discurso ante la muerte en las ordenanzas municipales del País Vasco y Navarra durante la Baja Edad Media” ere oso erabilgarria da, ordenantzetan horrenbeste aipamen dituen heriotzaren gaira hurbiltzeko, udal dokumentuek horrelako gaiak lantzearen arrazoiak azalduz.

Iosu Curiel Yarzaren eta Juan Roberto Muro Abaden lanak ere aipatu behar ditugu. Lehenak parrokiaren egitura eta izaera modu sakonean azaltzen dizkigu *La parroquia en el País Vasco-Cantábrico durante la Baja Edad Media (c. 1350-1530): organización eclesiástica, poder señorial, territorio y sociedad*, gai horren inguruan dagoen lanik oparoena, osoena eta berriena izanik. Bigarrenak, aldiz, “La castidad del clero bajomedieval en la diócesis de Calahorra” artikuloaren bidez, gai honen inguruko arazo nagusiak modu antolatu eta zehatzean lantzen ditu.

Aipatzea merezi duten beste klasiko batzuk ere badaude. Batetik Tarsicio de Azcona eta “Historia de la Iglesia en el País Vasco. Otoño de la Edad Media: 1378-1516” deritzon lana daukagu, interpretazio ahalmen gutxi badu ere, garaiko egoeraren ezaugarriak eta hainbat argibide ezagutzeko balio duena. Bestetik Johan Huizingaren *El otoño de la Edad Media: estudios sobre la forma de vida y el espíritu durante los siglos XIV y XV en Francia y en los Países Bajos* aipatu behar dugu, aspaldi idatzia egon harren erreferentziazko lana baita Erdi Aro amaierako pentsamoldeari dagokionez.

Tokiko lanei erreparatuz, aldiz, Jose Antonio Munita eta beste ikerlari batzuek idatzitako *En tiempo de ruidos e bandos: nuevos textos para el estudio de los linajes vizcaínos: los Barroeta de la merindad de Marquina (1355-1547)* liburua kontuan hartu behar dugu, Barroeta familiaren aspektu ezberdinen artean erlijiositateari dagozkionak modu aberatsean jorratzen baititu, gaia ilustratzeko balio duten hogeita sei agiriren argitalpenak gehiturik.

Azkenik Juan Carlos Enriquez Fernández eta beste batzuek eginiko Bilboko 1477-1520 urteetako ordenantza municipalen edizio lana aipatu behar da, bertan jasotzen diren neurri guztien artean, morala zuzentzera bideratutakoak hautatu eta alor ezberdinetan

sailkatu ditudalarik, hauek interpretatzeko aurreko autoreek emandako informazioa baliatuz.¹

3. ATALA: HERRI XEHEAREN KONTROLA

Lan honen lehen aztergaia herri xehea izango da eta horretarako, Bilboko udal ordenantzek (1477-1520) eskaintzen diguten informazioa erabiliko dut, garaiko jendearentzako pentsamolde eta jokabideak aztertuz.

3.1.- Elizkizunen kontrola

Elizkizunei dagokionez adierazgarriak dira hauen handitasuna erregulatzeko saiatzen diren neurriak, jende gehiegi pilatzea ekiditearekin batera.

Modu honetan, hildako baten urtebetetzeko mezetara joan behar den jende kopurua sei gizon eta beste horrenbeste emakumetara mugatu zen Bilbon 1479an, jendea otoitz egitera familiaren ospea eta handikeria erakustearren joaten baitzen.² Horrekin batera, kanpoko urtebetetze mezetara joatea eta kanpotik helburu honekin jendea hiribildura etortzea debekatu zen, hauetarako udal botereen baimena beharko zelarik. Baina meza berrien ospakizunekin ere berdina gertatzen da, bertaratu ziteken pertsona kopurua mugatuz.³

Conbidays, para/ los tales avtos e fiestas a muchos hombres e mugeres, asy/ fijosdalgo commo ofiçiales e labradores, en los cuales avtos/ e fiestas diz que se fassen muchos gastos demaesiados, asy/ por parte de los conbidadores commo de los conbidados de que muchos/ onbres han echo e fassen en esto mayores gastos de lo que buena/mente suelen sufrir e se hasen pobres e menesterosos.⁴

Muga hauek, erakustaldi hauen arrandia mugatzea zuten helburu, jarrera ezmorak bultzatzen baitzituzten, bai ordena soziala hautsiz (sortzen zituzten enbidiengatik) eta baita eragiten zituzten zorpetzeengatik, moral kristauaren apaltasunaren kontrakoak izanik. Horregatik, udalentsat garrantzi berezia izango dute horrelako jarrenren kontrako neurriek.

¹ Atal honetan aipaturako egile eta lanen aipamen osoak amaierako bibliografian azaltzen dira.

² ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *Ordenanzas municipales de Bilbao (1477-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1996, 28-34 orr.

³ *Ibidem*, 86 eta 105 orr.

⁴ *Ibidem*, 87 orr.

*El poder necesita, para ser reconocido, manifestarse por medio de un gran derroche: numeroso séquitos e leales, costosos adornos e imponente apariencia de los poderosos.*⁵

Kontrasteak eguneroko bizitzan, orain baina askoz ere handiagoak ziren gizarteko alor guztietan. Bizitza oso krudela zen eta bortizkeria tarteko zuten erantzunak oso ohikoak, biolentziak eguneroko bizian orain baina protagonismo azkoz ere gehiago izanik.⁶

Ildo beretik, dolu adierazpen gehiegizkoak ere mugatu nahi ziren, hots, zenbait egoeratan gehiegizko negarrak egitea, ileetatik tira egitea edo aurpegia urratzea debekatzen zen, esaterako, hileta aurretik apaiza hildakoaren bila joatean zein hileta bitartean, errezoak egoki egin ahal izateko.⁷ Hau guztia ederki islatzen du 1493ko Bilboko ordenantza honek:

*Porque en todo derecho dibino e vmano esta bedado el llorar des/ordenado porque los muertos e defuntos especialmente/ endechar e rasgar las caras, mesar los cavellos e que/brarse escudos e otras cosas, (...) que nunguno nin algunos de los vezinos e moradores de la/ dicha villa nin de fuera (...) vayan llorando sy quisiere, pero/ esto que non puede ser nin sea dando boses por las calles/ nin dentro, en la yglesia, salvo al tiempo de enterrar del defunto*⁸

Baina, negar eta garrasiekin, zeremoniaren arrandia eta handitasuna ere eman nahi ziren aditzera, eta hau kokatu behar da zeremonia guztien izaera publiko eta lehen aipatutako handitasuna erakustearen beharrarekin.⁹ Heriotzaren inguruko ospakizunek teatralitate puntu bat zuten, eta otoitzak, prozesioak eta gainerakoak bezala, negarrak ere teatralitate horren parte ziren, sinbologia jakin bat erakustea helburu zutenak.¹⁰

*Esta fácil emotividad se colmaba entonces de una veneración semirreligiosa por la pompa y la grandeza y se abría curso en sinceras lágrimas.*¹¹

Honetaz gain, mezak eta otoitzak, Jainkoari ezbehar batetan laguntza eskatzeko ere egiten ziren, 1490eko Bilboko ordenantzan ageri den bezala, aho batez onartzen baita

⁵ HUIZINGA, J., *El otoño de la Edad Media: estudios sobre la forma de vida y el espíritu durante los siglos XIV y XV en Francia y en los Países Bajos*, Alianza, Madrid, 2001, 37 orr.

⁶ *Ibidem*, 14 orr.

⁷ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 30 orr.

⁸ *Ibidem*, 100-101 orr.

⁹ HUIZINGA, J., *op. cit.*, 16-21 orr.

¹⁰ PALACIOS MARTÍNEZ, R. eta URCELAY GAONA, H., “El discurso ante la muerte en las ordenanzas municipales del País Vasco y Navarra durante la Baja Edad Media” in GONZALEZ MÍNGUEZ, C., eta BAZÁN DÍAZ, I. (zuz.), *El discurso legal ante la muerte durante la Edad Media en el nordeste Peninsular*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2006 111-117 orr.

¹¹ *Ibidem*, 21 orr.

izurria desagertu zedin, Ama Birjinaren sorkundearen ohoretan, meza abestu bat eskaini behar zela kontzejuak hala eskatuta, mendeek iraun bitartean.¹²

Honen azalpena garaiko pentsamoldean izurria eta antzeko hondamendi naturalak azaltzeko moduan datza, Jainkoak herriaren bekatuengatik bidalitako zigorrak zirela uste baitzen eta, beraz, erruki eske eta Jainkoaren handitasuna aitortuz mezak ospatzeak honen haserrea baretzen zuela uste zuten.¹³

3.2. Lukurreria

Lukurreria ere erlijio eta moralaren kontrako bekatu larria kontsideratzen zen. Ebanjelioek diotenez, ezer bueltan espero gabe mailegatu behar da eta Itun Zaharrean ere mailegu baten trukean interesa kobratzea oker zegoen. Erdi Aroko pentsalariek beraz, lukurreriaren kontra jardun zuten. Akinoko Santo Tomasek, dirua modu naturalean sortu ezenez, lukurreria ere antinaturala zela defendatzen zuen, naturala ez zen dirua uztearen truke, diru gehiago bueltatu behar baitzen.

Baina, Euskal Herrian ere, ideia hauek ezagutzen ziren, 1410ean Diego de Zuñigak, Calahorra eta Galtzadako apezpikuaren sinodo konstituzioan, lukurreruek mailegatzen zutena denbora zela baitzioen, epe jakin batean utziriko dirua eta interesak ordaindu behar zirelako. Denbora Jainkoaren jabetza izanik, berau mailegatzea bekatu larria zen, gizakiei hura kontrolatzea ez zegokielako. Hori ez ezik, interesak ordaintzeko ohikoa baino lan handiagoa egin behar zela zioen apezpikuak, ondorioz, zordunaren bizimodu normalaren jarduna desorekatuz. Hori gutxi balitz, lukurreriaren bekatua, dirua uzten zen momentutik itzultzen zen garaira arte luzatzen zela zioen, bekatu guztien artean gehien irauten zuena izanik.¹⁴

Beraz, maileguak eman edo hartzen zituena eskumikatua izan zitekeen, hots, kristau batasunetik kanporatua. Honek, gizartetik aldentuta geratzea eta zerua irabazteko bidea itxita izatea suposatzen zuen, garaiko pentsamoldean gerta ziezazukeen okerrean, bekatuaren larritasuna agerian uzten duena.¹⁵

Beste irakurketa morala ere badago ordea. Maileguak interesekin uztearen arazoa, diru hori bueltatzeko zailtasunak ziren gehienbat, neurri hauen atzean, dirua ezin

¹² ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 72 orr.

¹³ HUIZINGA, J., *op. cit.*, 32-33 orr.

¹⁴ BAZÁN DÍAZ, I., *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1995, 421 orr.

¹⁵ *Ibidem*, 422 orr.

itzultzeak ekar zitzakeen arazoak ekiditea ere egongo zelarrik. Beraz kutsu morala ere badu pobretzea eta gainerako arazo sozialak sahiestu nahi diren neurrian, gizartearen oreka mantentzeko helburuz.

3.3. Jai egunen erregulazioa

Jai egunak jai egingo dituzu, Jainkoaren legearen hirugarren aginduaren kontrako jokabideak ere izan behar ditugu kontuan. Agindu hau betetzeak igandearen izaera sakratua errespetatzea suposatzen zuen eta, beraz, ezin zen egunerokotasunarekin lotutako jarduerarik burutu. Atsedanak ezaugarritu behar zuen egun hau, asteko gainerako egun guztietatik bereiziz.

Bilboko udalak ere idatzi zituen gai honi lotutako neurriak, 1491eko ordenantza batek dionez, ezin baitzen ezer garraiatu igande, Bazkoa egun, apostoluen egun, eta abuztu, martxo edo iraileko Santa Mariaren egunetan eta elizak festa ezartzen duen egunetan agurmaria kanpaiak jo arte, iluntzean izaten zirenak.¹⁶ Ildo beretik merkataritza eta artisautza jarduera oro debekatzen da eta 1520an Bilboko ordenantzetan honako hau idatzi zen:

*Los merçeros e tenderos e çapateros e rementeros/ e asteros e lençeras e otros ofiçiales/ de la dicha villa e otros vesinos de la dicha villa (...) fassen sus obras e trabajan sus obras (...) en dias de Pascoa e domingo/ e fiestas que la yglesia manda goardar, lo qual // (fol. 171 r.º) hera e es cosa de mal exemplo, debiendo de honrrar/ e venerar e goardarlas (...).*¹⁷

Hau ulertzeko, horrelako jardueren hotsak, jendearen joan etorriak eta negozioekin lotutako liskarrak izan behar ditugu kontuan, hau ez baitzen garaiko ikuspegitik igande bat ospatzeko modurik egokiena, gainontzeko beste aste egunetako jarduerak izanik. Hortaz, igandearen izaera errespetatzeko meza nagusira joan, otoitzak egin eta atsedena hartzea zen kristau zintzo batek egin behar zuena.

3.4 Sexu harremanak

XIV-XVI mende bitarteko moralari dagokion arazo handienetakoa, ordea, sexu harremanekin lotutakoa zen, Jaunaren Aginduetan seigarrenaren kontra zihoana.

Bilbon, gaiaren garrantzia agerian uzten duten honelako neurri oparo dago, gehienak emakumeei zuzenduta eta euren jokabide sexualak erregulatzeko helburuarekin.

¹⁶ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 74 orr.

¹⁷ *Ibidem*, 255 orr.

1477an beraz, emagalduei dagozkien neurriak hartu ziren, burdeletik irteten zirenean *toca açefrenada* eraman behar zutela erabakiz, hain zuzen ere birginak ez zirela erakusteko. Hau bete ezean, hiru egun barru hiribildutik bi urtetarako botako zituztela esatenez,¹⁸ *amo* edo *sennor* gabe bizi zen emakumekin, gertatzen zen bezalaxe 1503ko ordenantza baten arabera.¹⁹

1505ean berriz, dantza eskola baten kontrako ordenantza idatzi zen, bertako irakasleari eskatuz ez zitzala eskolan gertatzen ziren ezmoraltasunak onartu:

*So color de yr a deprnder a dançar/ se entran muchos biçios yliçitos, especialmente en/ jugar e jurar e en bertenear e andar bagamundos e andar/ deshordenadamente e en biçio de con las mugeres/ de qu ese recresçia dapno e esperavan reçibir sy/ en lo benidero non fuese remediado (...).*²⁰

Baina denborak aurrera egin ahala prostizuzioaren kontrako neurri gogorragoak egin ziren, hala nola 1513an emagalduek hiribildutik eta errebaletatik kanpora atera behar direla erabakiz²¹ eta 1515ean prostituzioa debekatuz, emakume horien jardunak sortutako ondorioengatik:

*Desiendo ser honestas e linpias, avian perdido a muchos onbres de pro./ de que acavsa dello avian reçibido mucho dapno, asi en/ sus faziendas commo que avian perdido a sus mugeres e casas.*²²

Beraz, Jaunaren Legearen seigarren aginduaren kontrako arau haustea ugariak ziren eta hauen ondorioak berriz oso kaltegarriak. Garaiko gizartearentzako beraz oso garrantzitsua zen adulterioaren bekatuari erreferentzia egiten zioten jarrera hauek deuseztatzea.

Ikuspuntu teologikotik adulterioa ezkontzaren sakramentuaren kontra zihoan batetik, bere funtsa hausten zuelako eta bestetik lapurreta kontsideratzen zelako, andreak bere gorputza gizonari lapurtu eta beste gizon bati ematea. Beste ikuspuntutik, ordena soziala hausten zen jokabide honen bidez, ondorengotza ordena naturala arriskuan jarriz, baina horretaz gain, adulterioa emakumezkoa bada, biolentzia bidez konpondu beharreko desohorea zen senarrarentzako, honek bake soziala desorekatuz. Bestetik, familia ere

¹⁸ *Ibidem*, 21 orr.

¹⁹ *Ibidem*, 155 orr.

²⁰ *Ibidem*, 157 orr

²¹ *Ibidem*, 202 orr.

²² *Ibidem*, 192 orr.

hausten zen senar edo emazteak harremanak zituzten bikotearekin etxetik alde egiten bazuten.²³

Hala ere, garaiko aipamenetan emakumezko gehiago azaltzeak ez du esan nahi bekatu hau gizonek baina gehiago egiten zutenik, baizik eta emakumezkoen adulterioa okerrago ikusia zegoela eta sozialki inpaktu handiagoa zuela, haurdun geratzekotan ere, bera izanik ondorio larri horren karga eraman beharrekoa. Senarrak barka zezakeen emaztea, baina, hau oso gaizki ikusita zegoen, adulterioa barka zitekeela erakutsiz gero, gizartean jokabide hauek zabalduko zirelakoan.²⁴

Ezkontza sekretuak ere debekatuta zeuden gizartean eragiten zuten nahasteengatik,²⁵ ezkontza politikak helburu ekonomikoak baitzituzten maitasuna alde batera utzita, gurasoek hartutako erabakia zen heinean. Horregatik ezkontza sekretuek, maitasuna tarteko zela egiten zirenek, garaiko ordena hausten zuten, eta interes ekonomikoen kontra zihoan, gizarte ordena desantolatuz.

Amaitzeko, homosexualitateari erreferentzia egitea ere komeni da. Orduan *sodomismo* hitzaz ezagutzen zen, naturaren kontrako ekintza kontsideratzen zuten Jainkoak ezarritako ordena naturalaren kontra zihoan heinean. Itun Zaharreko Sodoma eta Gomorrako kontakizunak eraginda, seigarren aginduari dagozkion bekatuetan okerrena zela uste zuten, eta Jainkoaren kontrako irain latza, bere zigorren beldur zirelarik. Horregatik zigorra ere oso bortitza zen, sutako heriotza eta ondasunen konfiskazioa hain zuzen.

Hau ekiditeko neurri kuriosoak hartu ziren, prostituzioa onartzera jo baitzuten udal botereak Euskal Herri osoan zehar, beti ere, udalaren menpeko burdeletan bazen. Kontua da, ezkontza adina igotzearekin batera eta harreman sexualak ezkondu arte ezin izateko debekuak, gazte asko homosexualitatera bultzatuko zituela uste zutela garai hartan, beraz nahiago zuten prostituziora jotzea, beti ere, sodomismoa baina bekatu arinagoa baitzen, eta modu horretan guztiz deuseztatu ezin ziren bulkada horiek modu “hobean” zuzenduko zituzten gazteek. Hala ere, lurralde honetan ez dugu horrelako jokabideen neurririk, nahiz eta egongo zirela uste zen, baita emakumeen artean.²⁶

²³ BAZÁN, I., *op. cit.*, 278 orr.

²⁴ *Ibidem*, 284-286 orr.

²⁵ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 155 orr.

²⁶ BAZÁN, I., *op. cit.*, 345-348 orr.

3.5. Emakumeen soziabilitatea

Moralitatea aztertzen ari garen honetan emakume gehiegi biltzea ekidin nahi zituzten neurriak ere aurkitzen ditugu Bilboko ordenantzetan. Neurri hauek emakumeen bizi sozialaren berri ematen digute, non biltzen ziren eta baita bilkura horiek izan zitzaketen kalteak legeak egiten dituzten udalen ikuspuntutik. Modu horretan honela dio 1491ko bilboko ordenantza batek:

*Que las mugeres / non vayan a viesperas fasta que tannan, so pena/ de la pena de la ordenança, nin vayan a las paridas/ mas de seis mugeres, so la dicha pena.*²⁷

Hurrengo urtean ere aipatzen zen haurra izandako emakumea bisitatzera ezin direla sei emakume baina gehiago joan,²⁸ eta hau errepikatu egiten da 1493. urtean, sei emakume horiek haurra izandako emakumearen familiako kide gertuenekoak edo amak berak aukeratautako emakumeak izan behar direla gehituz.²⁹

Baina, ezkonberritan lehen aldiz elizara zihoan emakumeak berarekin eraman zitzakeen emakume kopurua ere mugatzen zen 1495eko ordenantza baten bidez, lehen egunean nahi zituen guztiak eraman zitzakeela esanez, bigarren egunean bi eta hirugarren egunean eta handik aurrera bakarrik joan behar zela zehaztuz.³⁰

Hau ikusita, esan dezakegu benetan autoritateei inporta zitzaiena ez zela emakumeak kanpaiak jo aurretik mezetara joatea baizik eta meza hasi aurretik denbora batean eliza atarian biltzea, mezaren aitzakiarekin. Berdin gertatzen zen haur jaioberria bisitatzera joaten zirenean, hemen, ordea, hau debekatu ezinik, emakume kopurua seira mugatzen delarik, gutxi izanda, arazo handiegirik sortzea ekidinez, ezkonberriaren konpainiarekin gertatzen den bezala.

Honen kutsu morala agintariak emakumeen txutxu-mutxuari zioten beldurrean datza, ondorioz haserreak, irainak eta antzekoak gertatzen zirelako. Beraz, benetan inporta zitzaiena ez zen mezetara berandu iristea, baizik aipatutako helburuarekin denbora baina lehen joatea, hau emakumearen soziabilitatea kontrolatu eta mugatzeko modua izanik.

²⁷ *Ibidem*, 173 orr.

²⁸ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 94 orr.

²⁹ *Ibidem*, 106 orr.

³⁰ *Ibidem*, 106-107 orr.

3.6. Jokoaren kontrola

Jokoaren kontrako arauak bere horretan moralarekin zerikusirik ez badute ere, jokoetan irabazi edo galtzeak ekar ditzakeen ondorioek bai.

Ezin dugu ahaztu jokoak arriskutsuak zirela dirua jokatzen zelako, eta beraz, haserreak sortarazten zituen, biraoa ondorio zuzena izanik. Modu honetan joko mugatu edo debekatzen duten neurriek haserreak eta ordena publikoa hautsiko duten ekintzak ekiditea eta biraorik ez esatea dute helburu, jokoan aritzeko denbora mugatuz edo zuzenean berau debekatzuz.³¹

Bilboko kasuan, 1487ko ordenantza batean dadotan, kartetan, boletan edo dirua jokatzen den beste ezertan aritzea debekatzen da, behintzat meza nagusiaren aurretik, (goizean zehar beraz), baina, ordenantza berak geroxeago dio dato jolasa guztiz debekatua gelditzen dela hiribilduan eta arrabaletan.³² Ondorengo urtetako neurriek ere dato jolasa debekatua dagoela gogorazten digute 1941ean³³ eta hurrengo urtean tabernetan dadotan jokatzea debekatzen da³⁴. Modu honetan, ohitura hau oso zabaldua dagoela ikusi dezakegu, debekua etengabe gogoratzeak, dirua tarteko duten jolasak desagerrarazteko zailtasunen berri ematen digularik, besteak beste, tabernak ere jokabide moral kristauetatik urrun zeuden tokiak bezala erakutsiz.

Baina udal ordenantzetan prebentzio neurriak ere hartzen ziren, horren adibide dugularik Bilboko 1491ko ordenantza hau:

En algunas casas asi en la villa/ como en los recales della, avian avido informaçion que acogian/ en sus casas a los mançebos jobenes, fijos de buenos, e les davan/ logar a que jugasen asy a dados como a naipes e a otros juegos/ e les daban lugar, asimesmo, en algunas cosas a que lle/vasen consigo a moças e mugeres e asi con ellas e asy ellas/ fazian muchas glotonias e bellaquerias e otros muchos eçesos/ de que nuestro sennor Dios era e es desseruido e la villa e vezinos della reçibian mucho detrimento.³⁵

Jokoaren kontrako neurriak hartzeko arrazoia, beraz, haren inguruan gertatutako jokabide ezmoralak ziren. Ondorioz, bere haserrearen pitzen zen eta beraz, lehenago aipatu

³¹ BAZÁN, I., *op. cit.*, 358 orr.

³² ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 53 orr.

³³ *Ibidem*, 73 orr.

³⁴ *Ibidem*, 92 orr.

³⁵ *Ibidem*, 165 orr.

bezala, honelako neurriak ere hiribilduarengan Jainkoaren haserreak sortutako izurri edo antzeko ezbeharrak ekiditea zuen helburu.

3.7. Jainkoaren aurkako irainak

Garaiko beste kezka garrantzitsu bat biraoaren kontrola zen, honek bekatu larria suposatzen baitzuen kristau doktrinaren arabera Jaunaren bigarren agindua hausten zelako (ez duzu Jainkoaren izena alferrik erabiliko). Udal botereak honen kontra indartsu egitearen arrazoia, horrelako bekatuengatik Jainkoak herriarengan botatzen zuen zigorra ekiditea zen, izurri, gosete eta horrelakoen bidez. Tamalez, nahiko ohikoak ziren ezbehar horiek garai hartan, eta hauek atmosfera egokia prestatzen zuten, garaiko jendeak hauen atzetik Jainkoaren eskua ikus zezaten.³⁶ Horregatik Bilboko ordenantzetan ere honelako adibideak aurkitzen ditugu:

*Que ningunos vezinos desta villa/ nin foraneos non sean osados de renegar que Dios non ha/ poder en Dios o minte (sic) en Dios en esta villa nin en sus rabales./ so pena que qualquier que lo feziere este en la yglesia en camison en la misa mayor con una çera de una libra (...) quien dixiere no ha poder Diuos o non creo en/ Dios o pese a Dios, que estos tales esten en vna/ misa, que ellos fagan desir vna misa donde quisieren e esten desnudos en camison e la çera, e que los sobredichos/ de suso paguen mill maravedis e los otros devaso a cada trezientos maravedis.*³⁷

Aldi berean, biraoak erlijio batasunaren kontrako oihu bezala ere identifikatzen zen, eta horregatik, Errege Katolikoekin erreinaldiarekin batera estatua indartzen doan heinean, honek, Eliza ordezkatu du biraoaren jazarpenean, izan ere, disidentzia erlijiosoa disidentzia politikoarekin lotzen da. Hortaz, batasun erlijiosoa Estatuaren boterea handitzearekin lotzen zenez, helburu moralaz gain, horrekin lotutako helburu politikoa ere badute ordenantzek.³⁸

3.8. Eskaletasunaren arazoa

Eskaleei zegozkien neurriak ere ikusi ahal ditugu Bilboko ordenantzetan, hauek ere helburu moralizantea izanik:

*Que ningund bagamundo nin/ otro pobre que se pueda mantener e pueda/ faser huebra que non ande por la villa mendigan/do a demandar nin por las iglesias, e salga fuera/ de la villa e sus rebales (...).*³⁹

³⁶ BAZÁN DÍAZ, I., *op. cit.*, 357 orr.

³⁷ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 102-103 orr.

³⁸ BAZÁN DÍAZ, I., *op. cit.*, 356 orr.

³⁹ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 155 orr.

XIV. mendeko krisiaren ondorioz eskaleen kopurua igo zen. Izan ere, feudalismoaren krisiarekin jaunek euren bizi maila mantentzeko erantzun gogorrak izan zituztela. Modu horretan, petxeroen gaineko presioa areagotu zuten, jaunen arteko borrokak ugaritu ziren... eta antzeko tresna bortitzak erabili zituzten. Honekin batera, ordea, kondizio klimatikoek gogortzea ere eman zen. Horrek guztiak herri xehea pobreago bilakatu eta eskaletasun maila igoz.⁴⁰

Agintariak ez zituzten ondo ikusten eskaleak, gaisotasunen zabaltzaile, arazo sozialen sortzaile eta kaleetako segurtasunerako arriskua zirelakoan. Horregatik pobre eta eskale kopurua kontrolatzen saiatzeak kutsu morala ere badu. Ezberdindu behar dira, ordea, beharragatik egoera horretan zeudenak edota, eskaletasuna ogibide bilakatzen zutenak eta hori da aurreko ordenantzaren helburua. Lanerako moduan zegoenak limosnarik ezin zuela jaso uste zuten, bestela iruzurra kontsideratzen zen.⁴¹

Baina, bazeuden euren egoerarengatik (zaharrak, gaixoak...) lan egin ezin zutenak eta eskaletasunera jo behar zutenak. Hauek Elizaren babesak zuten, balore ebanjelikoei jarraituz, gose denari jaten eman eta bilutsik zegoena janzteko betebeharra baitzuten kristauak. Hala ere, limosna eskatzeko autoritateen baimena behar zuten hauek, udalak benetan beharrean zeudela ikuskatu ondoren.⁴²

Beraz eskaleen alorra ezagutzeko aipatutako ordenantzak mezu moral bikoitza du, batetik, lanaren bidez euren bizia irabazi dezaketen eskale faltuen kontra eginez eta bestetik, jarrera horrekin batera benetan behar dutelako eskatzen dutenak defendatuz, aldi berean ezin baitugu ahaztu Elizaren iritzia pobre hauenganako karitatea, zerurako pasabidea irabazteko modua izango baita aberatsentzat.⁴³

4. KLEROAREN KONTROLA

Behe Erdi Aroan zehar, agintari zibil zein eklesiastikoei, elizgizonen portaerak, eta morala kontrolatzen eta arautzen jardun zuten, askotan, ez baitzuten euren posizio eta karguaz espero zena betetzen.

Hau ulertzeko, kontuan izan behar dugu erreforma garaiko testuingurua, XV. mendeko azken laurdenetik aurrera, berritze moral baten klima sortu baitzen gizarteko

⁴⁰ BAZÁN DÍAZ, I., *op. cit.*, 160-161 orr.

⁴¹ HUIZINGA, J., *op. cit.*, 69-71 orr.

⁴² BAZÁN DÍAZ, I., *op. cit.*, 166 orr.

⁴³ *Ibidem*, 168 orr.

eliteak inposaturik. Prozesu luzea izan arren, XIV-XVI. mendeen artean balore aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen, bai, sinesmen jakin batzuen inguruan gertatutako krisiarengatik eta baita, herria, egitura eklesiastikoen funtzionamenduan konfiantza galtzen hasia zelako.⁴⁴

Aztertzen ari garen garai honetako elizgizonak, elizaren hierarkian behe mailako jende xumea ziren, kulturalki maila baxua zutenak, askotan zaila izanik apaiza eta herri xeheko beste edozein pertsona ezberdintzea jarrerari erreparatuz.

*En el ámbito de la diócesis calagurritana y al margen de algunos reducidos núcleos cercanos al poder episcopal, la mayor parte del clero podría englobarse en los escalones bajos y cercanos al pueblo de la clerecía diocesana en cuanto se refiere a mundo socio-cultural, no en cuanto al poder político, del que todos los clérigos participan como representantes del poder de la Iglesia sobre las gentes.*⁴⁵

Baina, XIV. mende bukaeratik eta batez ere XV. mende hasieratik, errealitate hau zuzentzen ahalegindu ziren, kleroaren bizimoduan jarrera berriak bultzatuz eta modu honetan Jainkoari euren bizia sagaratutako pertsonak herri xeheetik aldentuz.

Garai honetan eman ziren hobekuntzen artean beraz, kristau ona izateko jarraitu beharreko ereduaren aldaketa kontuan izan beharrekoa da. Ordura arte, santuak, Maria Birjina zein apostoluak, aurkezten zituen Elizak, fededun bizitza eredugarri bat izandako pertsonak bezala, eta beraz, arimaren salbazioa lortzeko hauen bertuteak imitatu behar ziren. Hori momentu honetan moldatu zen eta kleroa paper aktiboagoa izatera pasako da, elizgizona izanik herritarrei eredu bezala aurkezten zitzaiena bizitza eredugarria zuen pertsona bezala. Horrenbestez, hori kleroaren bizimodua onargarriagoa izatera bultzatuko zuen beste faktore bat izan zen. Modu honetan, hierarkiak, XVI. mendean batez ere, apaizen irudia sakralizatu zuen helburu hau lortzeko, Jainkoarekiko harremanak bideratzen zituen heinean, herri xeheetik aparte egon beharreko pertsona bilakatuz.

*“El papel del clero así considerado permite ser interpretado no solo como trasmisor hacia el pueblo de un modelo de ideología, religiosidad, comportamiento, cultura en definitiva, sino que debe ser considerado, al menos parcialmente, como receptor o recipiendario de rasgos de la cultura del pueblo entre el que desarrolla sus actividades y del que en la mayor parte de las ocasiones procede.”*⁴⁶

⁴⁴ GARCÍA FERNÁNDEZ, E. (edit.) *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 14 orr.

⁴⁵ MURO ABAD, J. R., “La castidad del clero bajomedieval en la diócesis de Calahorra”, *Historia. Instituciones. Documentos*, 20 zenb. (1993), 265 orr.

⁴⁶ *Ibidem*, 265 orr.

Idea honek pixkanaka indarra hartuko zuten zenbait mugimendu bultzatu zituen aldatzeko gogo handiegirik ez zuen kleroaren artean. Gainera, Trentoko Kontzilioak (1545-1563) apaizgaitegiak bezalako formaziorako tresnak sortu zituen, ideien homogeneousazioan laguntzarekin batera apaiz idealaren sorrera bultzatu zuena.⁴⁷ Modu honetan, Elizaren helburua ez zen bakarrik apaizak lehen santuek betetzen zuten paper eredugarria betetzera pasatzea, aldi berean bere boterea sendotu eta udal boterearekin bat egin nahi zuen.⁴⁸

*La reforma tridentina promoverá la distancia y una distinta imagen exterior del clero frente al pueblo como elemento reforzador de su influencia y caracterizador de la función social de la Iglesia. Los espacios religioso y profano estrechamente relacionados hasta entonces, pasarán a estar nítidamente separados. (...) A partir del último tercio del siglo XVI el control y la jerarquización –apoyadas en los acuerdos tridentinos- establecen unas pautas de comportamiento más estrictas del clero. La función de espejo de virtudes encomendada a las gentes de religión promoverá la reforma interior, pero sobre todo, y de modo duradero la exterior.*⁴⁹

Testuinguru honetan ulertu behar dugu apaizen gaineko kontrola handiagotzera zuzendutako neurriak, hauen kopurua altua izateak, zuzendu nahi zituzten jokabideen errotze maila altua aditzera ematen digularik.⁵⁰

Kontrol hau nortzuen eskutik ezartzen zen aztertzen badugu, hiru alor ezberdin banatu behar dira. Batetik Eliza bera, aipatu bezala, erreforma korrante horretan sartua zegoena eta bere hierarkiaren kideen moralaz arduratzen zena; bestetik kontzejuak, hots, tokian tokiko udal botereak; eta azkenik baita patronatuko elizak zituzten jaunek ezarritako kontrola ere, apaizen moralaz ez ezik, apaiz hauen menpe zeuden “arimen” kontrola bideratu nahi zutenak etekin ekonomikoa bideratzearekin batera.

4.1. Behe kleroaren hezkuntza eta prestaketa

Aipatutako kontrola alor ezberdinetan gauzatzen zen, hasteko apaizen hezkuntza aztertuko dugularik. Esan bezala, garai honetako kleroak eta herri xeheak zenbait espazio eta pentsamolde elkar-banatzen zituen. Behe mailako kleroak formazio kultural eta intelektual oso xumea zuen, gainera, patronatu elizen ugaritasuna dela eta, patroiek apaiz ezjakinak jartzen zituzten parrokien zuzendaritzan arazorik sor ez zitzaten. Horrexegatik,

⁴⁷ MURO ABAD, J. R., “El clero diocesano vasco en los siglos XIV y XVI: una imagen” in GARCÍA FERNÁNDEZ, E., (edit.) *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*, Bilbo, 1994, 54-55 orr.

⁴⁸ *Ibidem*, 66 orr.

⁴⁹ *Ibidem*, 80-81 orr.

⁵⁰ MURO ABAD, J. R., *op. cit.*, “La castidad...”, 264 orr.

bereziki patroiek aukeratutako elizgizonak, bokazio gabeak ziren eta ez zuten euren betebeharrak aurrera eramateko behar adina jakintza.⁵¹ Horrenbestez, elizgizonek egunerokotasuneko ezaugarri anitz zein bizitzaren aurrean zuten ikuspegia elkar-banatzen zuten bizi ziren jendearekin.

Egoera honi aurre egiteko, diozesietan katiximak eta sinodoetako konstituzio eta dokumentuak idatzi ziren, doktrinaren orokortasunak adierazteaz gain, aplikatu behar diren gizartearen “gaitz” eta “bekatuen” erreflexua direlarik. Neurri hauek hartuz, Elizak indibiduen kontzientzietan eragina izan nahi zuen, ondo eta gaizki zegoena jakinaraziz. Horrela, Elizak gizartearen kontzientziaren errepresentazioa izatea zuen helburu, horretarako bere menpeko apaizak zuzendu behar zituelarik.

Katiximen bidez, diozesiek euren menpeko apaizen formazioa kontrolatu eta hobetzea zuten helburu, herriak kristautasunaren balore nagusiak ezagutu zitzan, umeei hobeto erakutsi, errituak hobeto burutu eta eliztarrekin erlazioak hobetzeko, aldi berean, apaizaren irudiaren indartzea sustatuz. Beraz, Trentoko Kontziliara arte ez zirenez apaizgaitegiak sortuko, neurri hauek, gutxi ikasitako apaizen hezkuntza osatzea zuten helburu, idatzi santuak eta liturgiaren gorabeherak hobeto ezagutu eta sakramentuak ondo burutzeko, hauen eraginkortasuna bermatuz.⁵²

4.2. Elizgizonen zelibatoa

Sexuari dagokionez ere, berri ugari baitago zelibatuaren erregela betetzen ez zutela adieraziz, hau arazo ugari eta larrietakoia izango zelarik, ohikoa baitzen elizgizonek ohaideak izan eta kastitate botoari jaramonik ez egitea. Horren ondorioz gainera, apaizek seme-alabak izaten zituzten eurekin bizitzen eta hori sortu nahi zen apaiz eredugarriaren irudiaren kontra zihoan. Baina honek onarpen maila handia zuen garaiko gizartean, jarrera honen sustraiak aspaldidanik errotuta zeudelarik. Horren adibide dugu jada 1240an Calahorrako Aznar gotzainak urte horretan ospatutako sinodoko aktan kontatzen diguna, apaizen seme-alabak elizari leialtasun zina egin behar ziotela aginduz, aitaren heredentzia jaso nahi badute. Beraz, seme horien esistentziaren kontra egitea oso zaila zela iradokitzen digu honek, hori ikusita, apaizen harremanen ondorio diren umeen leialtasuna ziurtatzera zuzentzen zelarik, hauek arazo bat izan ez zitezen.⁵³

⁵¹ BAZÁN, I., *op. cit.*, 296 orr.

⁵² GARCIA FERNÁNDEZ, E., *Gobernar la ciudad en la Edad Media: oligarquías y élites urbanas en el País Vasco*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 2004, 453-455 orr.

⁵³ MURO ABAD, J. R., *op. cit.*, “La castidad...”, 276 orr.

Gizarteak puntu bateraino onar zezakeen eremu pribatua apaizek horrelako jarrerak erakustea, azken finean herriak, kleroaren pekatuetan ikusten baitzuen euren pekatuentzako nolabaiteko garantia bat.⁵⁴ Eremu publikoa aldiz, beste gauza bat zen, eta Elizaren hierarkiatik jarrera hauek ezkutatzaren saiatzaren ziren herriaren begien aurrean. Gainera zigorrak aplikatu izanaren froga faltak, garrantzizkoena Elizarentzat, delitu hauek ezkutatzea zela iradokitzen digu, arazoarekin ezin zutela amaitu ikusita.

Honen arrazoiak batetik hezkuntza mailarekin lotu behar ditugu, baina bestetik geografiak ere eragin handia zuen honetan. Batetik, apaiz gehienak nekazal giroan egonik eta horrelako tokietan autoritate falta izanda, elizgizonen morala erlaxatzen zelako, Bizkaiko kasuan areagotzen zen zerbait, gotzainaren bisitei uko egitearekin. Bestetik, orografia malkartsua izanik, apaizak kontrolatzea zailagoa baitzen, komunikabideen ezaugarriak zirela medio.⁵⁵

Kleroak ohaideak izatean, herriko agintariak beldur ziren, ezkontzatik kanpo zeuden emakumeak apaizengana joko ote zuten euren bizitzan aurrera ateratzeko, ohaideak zigortzen ez zituztela ikusita. Nahiz eta Goi Erdi Aroan hau ohikoa izan, aipaturiko erreforma testuinguruan honen kontrako neurriak hartu zituzten. Botere eklesiastikoen, apaizak jarrera hauek alde batera uzteko neurriak hartu zituzten sinodoetako konstituzioetan, batez ere, 1215eko Letrango IV Kontzilio Ekumenikoaren ondoren. Aipatu bezala ordea, udal botereek ere erregulatzen zuten arazo hau, gizartean sortzen zituen desorekak ekiditeko helburuz. Hala ere, kontuan izan behar dugu apaizak pribilegiadun estamentua izanik, epaitegi eklesiastiko batek soilik epaitu zitezakeela. Udal ordenantzek ohaideen kontrako neurriak soilik hartu zituzketen, honela, gainerako emakumeak ohaidetatik aldentzeko zituztelakoan, hau izanik zeharka bada ere, udalek egin zezaketzen gauza bakarra.

Horrenbestez, Gaztelako *Partidetan* esaterako, elizgizonekin bizi zitezkeen emakumeak zein ziren zehazten dira, hala nola, ama, arreba, amona, izeba, iloba, ordenatu aurretik zuen alaba, erraina edo lehengusua ez zen emakumerik ezin zen berarekin bizi.⁵⁶ Gipuzkoako kasuari dagokionez, udal botereek apaizen etxeetan sartzeko baimena zuten,

⁵⁴ MURO ABAD, J. R., *op. cit.* "El clero...", 55-56 orr.

⁵⁵ BAZÁN, I., *op. cit.*, 296 orr.

⁵⁶ *Ibidem*, 297-298 orr.

ohaidetik zuen edo ez ikusteko, kastitatean zintzo bizi zirenen ohorea zalantzan jarritz, erregeak hau egiteari utzi ziolarik, ohaideak zituzten apaizak lasaiago egonik.⁵⁷

Baina, ahalegin hauek oztopoak aurkitzen zituzten, Elizak ere, bere apaizak babesten zituelako.⁵⁸ Baina, Elizako hierarkiaren barnean ere, kargu batzuekin permisiboagoak ziren besteekin baina; horren adibide dugu 1380an Calahorrako Gonzalo Apezpikuak Ziortzako apaizei zuzendutako ordenantzetan aipatutakoa, bertan ohaidetza delitu kontsideratzeko, abadearen kasuan publikoa bakarrik izan behar baitzuen; benefiziadun elizgizonen kasuan, aldiz, ohaidetza eremu pribatuan zein publikoan zigortzen zen.

4.3. Elizgizonen bestelako jokabideak

Aisiari dagokionez ere, elizgizon ugari herriaren denbora pasa berdinetan parte hartzen zuen, hala nola karta joko, festa eta dantzetan, tenplua askotan horrelakoen eszenatoki bilakatuz. Horrela, elizgizonari pilotan ibiltzea, hitz itsusiak esatea, mozorrotzea zein dantzan egitea debekatu zitzairen eta baita Eliza sakramentuak ospatzeko ez zen beste ezertarako erabiltzea. Esaterako, Bilboko ordenantzetan:

*Yten, hordenaron e tovieron por vien que ningund clerigo be/neficiado o non beneficiado non sea hosado de jugar/ en las calles nin plaças a ningund juego, saluo al axadres (sic),/ so pena de suspension.*⁵⁹

Horrez gain, kleroak jantzi beharreko arropen inguruko aginduak ematen zituzten, herriarengandik ezberdinduz, hala nola, arropa koloretsuak debekatuz, hanketarainoko habito luze eta kolore ilunetakoak eramateko aginduz, tontsura eraman behar zutela esanez edo ilea belarriak ikusteko moduan moztua ibiltzeko aginduz.⁶⁰ Elizgizonaren jantzia, bere zeregin bereziaren isla bezala erabili zen, jantzi honek herri xeheko pertsonen iruditik aldendu eta bizimodu mundutarretik aparte bizi behar zela gogorarazi behar ziolarik. Izan ere, garaiko kristau pentsamenduan, zenbait moda gaizki ikusita zeuden, hauek Jainkoaren irudira egindako gizonaren irudiarekiko errespetu falta bat zirela uste zelako. Aldi berean, arropak eta apaizaren kanpoko itxurak bere barneko itxura adieraztea zuen helburu, bere kastitatea eta xumetasuna islatu behar zuen, horregatik luxuzko arropak debekatuta zeuden apaizentzat. Hala ere, salbuespen bezala aipatzekoa

⁵⁷ *Ibidem*, 301 orr.

⁵⁸ *Ibidem*, 302-304 orr.

⁵⁹ ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 248 orr.

⁶⁰ AZCONA, T. de, "Historia de la Iglesia en el País Vasco. Otoño de la Edad Media: 1378-1516" in *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*, Caja Provincial de Álava, Vitoria, 1981, 97-100 orr.

da, agian gotzainaren boteretik urrutien geratzen zelako, Bizkaiko kasuan apaizen arropak gutxienez belaun azpirainokoak izan beharreko agindua, eta ez hanketarainokoa.⁶¹

Hauetaz gain, apaizek armak erabiltzeko debekuak ere idazten zituzten udal botereek, hemen ere Bilboko ordenantzetako adibide bat daukagularik:

“Yten, hordenaron e tovieron por vien que sy por bentura/ algund clerigo troxiere armas, asi como espadas,/ punnales e dagas o otras armas, si non fuere por/ cosa justa e reçelo de alguno, quel alcalde de dicha villa/ les pueda tomar e quebrantar si non las troxiere/ con liçençia e avtoridad del arçipreste e alcalde de la dicha villa de Biluao, // (fol. 288 v.º) que en tal caso quoaquier justiçia ge la puede quitar e tomar e quebrar; e el tal/ clerigo que no las diere que pague quinientos maravedis, so pena de suspençion; la/ quoa dicha pena de los dichos quinientos maravedis sea para las obras de/ sennor Santiago e Sant Anton e la otra mitad para el que lo exe/cutare.”⁶²

Horrela kleroaren eta herriaren arteko harreman horizontalen ezaugarri ziren portaerak eliminatu nahi ziren, erlazio bertikala indartu eta izaera ezberdin hori antzeman zedin.⁶³ Baina hau, oso zaila izan zen, behe kleroaren eta herriaren arteko ezberdintasun kulturalak horren txikiak izanik, apaizek kolektibitate beraren parte zirela uste baitzuten askotan. Hori ikusten da laiko eta apaizek elkarri faboreak egiten zizkiotenean, esaterako funtzio judizialean ari zen apaiz bat erositik; apaiz batek bikote bat klandestinitatean ezkonduz zein apaizak borroketan sartuta egotearen berriak ikusiz.⁶⁴

4.4 Kleroaren talde kontzientzia

Aipatzea merezi duen beste elementu bat, kleroak zuen talde kontzientzia da, kontrol honen aurrean izaera hau probesten zutelarik. Apaizek, beren pribilegio eta inmunitateaz probesturik, euren artean laguntzen zioten elkarri, botere zibil zein erlijiosoa euren kontra zihoanean. Horren adibide dugu 1499ko errege probisio batek azaltzen diguna, korregidore bat apaiz talde baten ohaideak atxilotzera zihoala, apaiz taldeak korregidorea erasotu eta atxilotetak ekidin zituztela alegia. Gainera, ekintza honek apezpikuaren babesa izan zuen; honek adierazten digu ohaidetza zer errotuta zegoen eta kleroaren arteko elkartasuna zenbatekoa zen, nahiz eta bekatu egiten ari zirela jakin. Beraz bi elkartasun mota ezberdintzen dira, berdinen artekoa baina baita Eliz hierarkiaren eta bere kideen artekoa ere, azken hau XVI. mendetik aurrera erreformaren testuinguruan

⁶¹ MURO ABAD, J. R., *op. cit.* “La castidad...”, 278-279 orr.

⁶² ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *op. cit.*, 248 orr.

⁶³ MURO ABAD, J. R., *op. cit.*, “El clero...”, 61-65 orr.

⁶⁴ *Ibidem*, 60-61 orr.

desagertzen joango zelarik. Kleroaren ezaugarri hau, apaiz hauekiko deskontrola eta ondorioz euren bizimoduaren degradazioarengatik areagotu zen, erreforma, ekintza hauek desagerrarazten ahaleginduko zelarik, esparru publikoari dagokionez behintzat, itxura gordetzeko bazen ere.⁶⁵

Horretaz gain, Bizkaiko kasura itzulirik, aurreko egoeraren kontrako jarrerak ere bazeudela ikusi dezakegu. Jaunen eta apezpikuaren artean, eta badaude kasuak zeinetan patronatuko elizako jaunek eta apaizek bat egiten zuten apezpikuaren kontra egiteko. Eguneroko bizian horiek biak batera ez egon arren, apezpikuaren kontrolari uko egiteko modu bat izan zen hau, honek bere apaizak kontrolatzea eta bando arazoetan alde batera edo bestera egitea ekidinez.⁶⁶

4.5. Kontrolatzaile anitzak eta lehiakideak

Kleroaren kontrola aztertzen dugunean ordea, orain arte esan bezala, bai Eliza eta baita botere herritarrak ere sartzan direla ikus daiteke. Beraz, jurisdikzio ezberdinen arteko talka gertatu zela esan behar da, Elizarena alde batetik eta zibila bestetik.

Bi hauek bestea bere arloan sartzan ari zela uste zuten, izan ere, botere zibil eta erlijiosoaren arteko gertutasuna (eta askotan batasuna) zela eta, bata eta bestearen eskumenak ez zeuden argi. Horrenbestez biak saiatzen ziren jurisdikziorik ez galtzen eta ahal izanez gero, bestearen gaintik jartzen. Gauzak horrela, apaiz askok gizartean zuten posizioaz baliaturik, justizia zibiletik alde egiten zuten epaimahai eklesiastiko batek epaitu zitzan, hau ez baitzen horren gogorra. Gainera, Eliza estamentuan gaztetxo zein ezkonduak ere bazeuden. Nola ulertzen da hau? Umeak gaztetatik eta gizon heldu asko ezkondu aurretik, Eliz estamentuan sartzeko ahaleginak egiten zituzten, gero apaiz ordenatzen baziren benefizio eklesiastiko batez probesteko, zein justizia eklesiastikoaren barruan egoteko. Aldi berean Elizak onartu egiten zuen hau, bere jurisdikzio esparrua handitzen laguntzen ziolako, eta Euskal Herriko kasuan gainera, patronatuko elizen existentziak egoera hau bultzatzen zuen.⁶⁷

Izan ere, hirugarren botere bat ere bazen, patroiena hain zuzen ere. Hauek elizgizonen bizimodua erregulatu zezaketen, esaterako kaperautzen fundazioaren bitartez. Horren adibide dugu Ochoa Martinez de Careaga eta Ochanda del Castillok 1475ean burututako Markinako kaperautzaren fundazioa. Honen bidez, apaizen irudi

⁶⁵ *Ibidem*, 77-80 orr.; GARCÍA FERNÁNDEZ, E., *op. cit.*, *Gobernar...*, 458-486 orr.

⁶⁶ AZCONA, T. de, *op. cit.*, 94-96 orr.

⁶⁷ *Ibidem*, 78-80 orr.

bertutetsua eta eredugarria bultzatuz, kaperautza bera fundatu zuen familiaren ospea eta izen ona islatzea zen helburu, fundatzaileek ekonomikoki apaiz talde bat mantentzen zuten heinean:

“E que ninguno de vos, los dichos capillanes, e de los otros que a vos suçedieren en las dichas capillanías, non ayades nin tengades, nin hayan nin tengan mançeba pública, nin seades nin sean públicos logreros nin usuarios públicos so pena que lo contrario fisierdes e fisieren, por el mismo fecho, syn otra sentencia nin proceso alguno, perdades e pierdan, e hayan perdydo, las dichas capillanias de la dicha capilla, e en su lugar de qualquier vuestro subçesor que en lo susodicho incurrieren sea elegido e nombrado e presentado otro clérigo ydóneo, suficiente, en la manera susodicha para syempre jamás”⁶⁸

Egoera horretan, prelatuen boterea indartzen joan zen. Apezpikuek (Koroaren babesarekin) lurraldea eta beren menpeko apaizak kontrolatzeko erreforma giro hau aprobetxatu zutenez, sinodoen kopurua handitu zen. Hala ere, Bizkaiko kasuari dagokionez berezitasun bat aipatu behar dugu, lurralde honek ez baitzuen apezpikuaren bisitarik onartzen, Bizkaiko Foru Zaharrean (1452) apezpiku zein haren ordezkariarik ezin zela bertan sartu esaten baitzen. Horrenbestez, apezpikuak ezin zuen Jaurreria kontrolatu ohiko bisiten bidez eta honekin batera Bizkaian indar handia zuen patronatu laikoa ere aipatu behar da.

Modu honetan patroia zen (eta ez apezpikua), bere menpeko elizan apaizak izendatzen zituena, apezpikuak hark aurkeztutako apaiza onartu eta sagaratu beste ezer ezin zuelarik egin. Horrela, patroiak aukeratutako apaizak hezkuntza xumekoak ziren, berak errez kontrolatu zitzen. Horretaz gain, ordea, apaizak ere ez zuten gotzainaren autoritatearen menpe egon nahi, honek zorrotzago kontrolatzen zituelako eta beraz erosoagoa zen beraientzat artzapezaren menpe bakarrik egotea, apezpikuaren faltan hau izanik elizgizonen kontuak zuzentzen zituena, aldi berean, honen kontrola gotzainarena baina arinagoa izanik.⁶⁹

Hala ere, XV. mende bukaeran gotzain justiziaren eragina onartu zen lurraldean, beti ere, patroiekin talka ez egiteko, euren influentzia esparrua moral eta doktrina kontuei dagokiena bakarrik izanik. Modu horretan, patronatu elizetako apaizak euren patroien eta apezpikuaren kontrolaren menpe zeuden, lehenaren helburua patronatutik etekin

⁶⁸ MUNITA LOINAZ, J. A. et al., *En tiempo de ruidos e bandos: nuevos textos para el estudio de los linajes vizcaínos: los Barroeta de la merindad de Marquina (1355-1547)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2014, 192-193 orr.

⁶⁹ GARCÍA FERNÁNDEZ, E. et al., *op. cit.*, *Religiosidad...*, 20-23 orr.

ekonomikoa eta promozio soziala lortzea zen bitartean, bigarrenak moralaren eta kristau doktrinaren zabalkundea izango zuelarik helburu apaiz horiengan, ekonomian ezin eskurik sartuz.

Hala eta guztiz ere, egoera hau aldatu egin zen eta apezpikua bere boterea indartzen saiatu zen Bizkaian. Modu horretan, Gipuzkoako Debako haranean bisitak egiten hasi zen eta hauek urterokoak bihurtu ziren, eta denboraren poderio baita Jaurerrian ere (gero ikusiko dugun bezala). Beraz, gero eta influentzia handiagoa lortu zuen kleroa kontrolatzeko eta patroien eskubidetan ere sartu zen, zuzenean patroiak apaiza aukeratzea ekidin eta apezpikuak aukeratu zezan. Markinako kasuan, adibidez, patroiz ziren Ugarte eta Barroeta familiakoek, apaiz batzuk aurkeztu behar zizkioten apezpikuari, honek azken aukeraketa egiteko. Horretaz gain, apezpikuak bere boterea ekonomia gaietara ere zabaltzea lortu zuen maiordomoa edo elizako ekonomiaz arduratzen zen pertsona kontrolatuz eta baita apaizek jasotzen zuten benefizioa ere. Horretaz gain, 1511tik aurrera apezpikuak Markinako parrokiaren kontrol handiagoa izango zuen, elizigizon benefiziadunen kopurua zehaztuz, eta karguaren duintasuna bermatu nahian, guxienezko prestaketa doktrinala eskatuz. Baina, hau ez zen segituan aldatu, patroien kontrolaren tradizioak oso errotuta baitzeuden eta askotan ez zitzaion jaramonik egiten gotzainari.

Gauzak horrela, 1519an Bizkaiak gotzainaren bisitak onartu zituen ofizialki, nahiz eta beranduago arte ezin izango zuen leku guztietan bere influentzia zabaldu. Prozesu honek talkak sortu zituen ordura arte kleroaren eta patronatu elizen gainean izandako kontrolarekin, baina gotzaina ez zen lehen bezala atzera bota eta bere boterea sentiarazi zuen, beti ere tokiko interesen gainetik guztiz inposatu gabe.⁷⁰ Hala ere gotzainaren lehen bisita gertatu arte, urte batzuk igaro ziren, 1547ean gertatu baitzen hau lehen aldiz.⁷¹

5. ONDORIOAK

Ondorioei buruz hitz egitean, kontuan izan behar dugun lehen gauza delituaren eta bekatuaren arteko ezberdintasun eza da. Bekatuak jarrera mesprezugarriak ziren, eta beraz, moralari zegozkion ordenantzak, jarrera mesprezugarri horien kontra zihoazenez, delituak eta bekatuak bat egiten zuten moralaren arloan.

⁷⁰ MUNITA, J. A. et al., *op. cit.*, 193-200 orr.

⁷¹ CURIEL YARZA, J., *La parroquia en el País Vasco-Cantábrico durante la Baja Edad Media (c. 1350-1530): organización eclesíastica, poder señorial, territorio y sociedad*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2009, 67 orr.

Herri xeheari heltzen badiogu, udal botereek moralari dagozkion neurriak hartzeari ematen dion garrantzia azpimarratu behar dugu, honen bidez ordena soziala mantentzeko asmoz.

Garrantzitsua da kontuan izatea Errege Katolikoek garaitik aurrera, batik bat, batasun erlijiosoaren ezinbestekotzat jotzen zela Iberiar Penintsulako erresumen eta jurisdikzioen artean lotura politikoa lortu ahal izateko. Modu honetan, ez da harriztekoa hiribilduetatik hasi eta Gaztelako koroaren buru zen erregeraino arazo erlijiosoak eta banaketak sor zitzaizketen pentsamolde ezberdinak gizartetik ezabatzen ahalegintzea.

Bestetik, hiribilduetako bakea ere mantendu nahi zen neurri hauen bidez, izan ere liskarrak ohikoak ziren arrazoi ezberdinengatik, borrokak, enbidiak, ezkontza nahasteak eta beste asko. Horrela, gizartearen egitura apurtuko zuten elementuak ekiditea zen beste helburuetako bat.

Azkenik, kutsu erlijiosoarekin, bekaturako jarreraren kontra egiten zuten udal botereek. Garaiko pertsonen, biraoak edo ezkontzaz gaindiko sexu harremanak bezalako jarduerak, gizarte arazoak ekartzen zituztela uste zuten, familiak banatuz edo borrokak sortuz. Jarrera hauen ondorioz Jainkoa haserretzen zela uste zuten, eta beraz, izurriak, goseteak eta horrelako fenomenoak, jarrera hauen zigorra zirela ulertzen zuten garaiko gizarteak, horiek ekiditeko neurri hauek idatziz.

Elizgizonen alorrari dagokionez ordea, hierarkian kopuru handiena osatzen zuten behe mailako kleroaren egoera tamalgarria azpimarratu behar da, hezkuntza maila xumearen eta herri xehearen lotura handiaren seinale dena. Horren adierazle garrantzitsuenetakoa, ohaidetzaren zabalkundea da elizgizonen artean. Baina, gizarte talde pribilegiaduna izanik, udal botereek egoera hau hobetzeko hartu ahal zituzten neurri guztiak balio handirik gabeak zirela, Elizako hierarkiak bere kideak babesten zituelako. Horregatik, udal botereek egin zezaketzen gauza bakarra, aipatutako adibideak ohaidearen kontrako neurriak hartzea zen.

Egoera hau aldatu zedin, beraz, XV. mendera arte itxaron behar izan zuten, Elizaren barnean ere aldaketarako joera nabarmenduko baita pixkanaka, Trentoko kontzilioa (1545-1563) izanik horren adierazlea.

Modu honetan elizgizon idealaren erdua bultzatuko da, bertute ispilu dena eta lehen santuek betetzen zuten erredugarritasun papera beteko duena. Honen bitartez, burutzen dituen zereginak zirela eta, elizgizonaren irudia sakralizatuko da, bere irudia

herri xehearengandik aldentuz. Aldi berean, aldaketa hauekin batera, botere erlijiosoak udal botereekin bat egitea izango du helburu, bere influentzia morala aprobetxatuz.

Baina ezin dugu ahaztu, botere zibilen eta erlijiosoen arteko talka garrantzitsuak ere egon zirela, azken batean bata eta bestearen jurisdikzioaren mugak beti garbi definiturik ez zeudenez, batzuen bestearen kontuetan sartzen baitziren. Azken batean, Erdi Aroan zehar botere politiko eta eklesiastikoaren arteko nahaste eta batasuna eman zen, interes politikoak eta arimen kontrolak bat egiten zuten askotan eta aldi berean elkarri traba ere egiten zioten, arazoak sortuz. Honek beldurra eragiten zuen bai udal botereen artean eta baita Elizako kideen artean, euren jurisdikzio eremua murriztuta ikusten zuten heinean

Hala ere, hau ikusita bi botereak parekatuta zeudela dirudien arren, nire ustez Elizaren edo, behintzat, bere pentsamoldearen eragina nabarmena da gizarte guztian, eta horrenbestez baita udalek egindako ordenantzetan ere, kristau doktrinaren kutsua ukaezina da. Gainera, Europako egoera orokorrarekin erkatuz gero, aztertu dugun egoera, joera orokor baten parte da. Mendebaldeko zibilizazio kristauean, botere zibilen partetik herritarren jokabideak zibilizatu nahiko baitira, bakea ziurtatzeko helburuz eta honekin batera jarduera ekonomikoak ahalbidetu eta Jainkoaren haserrea ez pizteko.

6. BIBLIOGRAFIA:

6.1 Azterlanak

AZCONA, T. de, “Historia de la Iglesia en el País Vasco. Otoño de la Edad Media: 1378-1516” in *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*, Caja Provincial de Álava, Vitoria, 1981.

BAZÁN DÍAZ, I., *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1995.

CURIEL YARZA, J., *La parroquia en el País Vasco-Cantábrico durante la Baja Edad Media (c. 1350-1530): organización eclesiástica, poder señorial, territorio y sociedad*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2009.

GARCÍA FERNÁNDEZ, E., *Gobernar la ciudad en la Edad Media: oligarquías y élites urbanas en el País Vasco*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 2004.

GARCÍA FERNÁNDEZ, E., *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

HUIZINGA, J., *El otoño de la Edad Media: estudios sobre la forma de vida y el espíritu durante los siglos XIV y XV en Francia y en los Países Bajos*, Alianza, Madrid, 2001.

MUNITA LOINAZ, J.A. et al., *En tiempo de ruidos e bandos: nuevos textos para el estudio de los linajes vizcaínos: los Barroeta de la merindad de Marquina (1355-1547)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2014.

MURO ABAD, J. R., “El clero diocesano vasco en los siglos XIV y XVI: una imagen”, in GARCÍA FERNÁNDEZ, E., (edit.) *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 53-82 orr.

MURO ABAD, J. R., “La castidad del clero bajomedieval en la diócesis de Calahorra”, *Historia. Instituciones. Documentos*, 20 zenb. (1993), 261-282 orr.

PALACIOS MARTÍNEZ, R., eta URCELAI GAONA, H., “El discurso ante la muerte en las ordenanzas municipales del País Vasco y Navarra durante la Baja Edad Media”, in GONZALEZ MÍNGUEZ, C., eta BAZÁN DÍAZ, I. (zuz.), *El discurso legal ante la muerte durante la Edad Media en el nordeste Peninsular*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2006, 105-175 orr.

6.2 Dokumentuen edizioak

ENRIQUEZ FERNÁNDEZ, J. et al., *Ordenanzas municipales de Bilbao (1477-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1996.